

Ingenieritzako eta EURACE zigilua duen mekanika graduko titulatuaren diploma banaketa

2015/03/26

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK diplomak emango dizkie 2013-2014 promozioko Industria Ingeniaritza Teknikoko eta Graduko ikasleei bihar, ostiralean, martxoak 27, 19:00etatik aurrera, Arrasateko Amaia antzokian. Guztira 177 ikaslek jasoko dituzte diplomak, horietatik 51 emakumeak direlarik. Gainera, EURACE zigilua duen Ingeniaritza Mekanikoko Graduko ikasleen lehen promozioak jasoko du diploma. Zehazki, Ingeniaritza Mekanikoko 56 ikaslek jasoko dute, dagokien diplomarekin batera, ingeniariaren egiaztatzea jaso dezakeen egiaztatzerik ospetsuena eta desiratuena: EURACE europar ingeniariaren egiaztatzea. Izan ere, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Goi Eskola Politeknikoa ematen duen Ingeniaritza Mekanikoko Gradua EURACE europar ingeniariaren egiaztatzea lortu duen lehen ingeniariaren da Estatuan, Madrilgo Carlos III Unibertsitatearekin batera. EURACE zigilua lortzeko Europako Unibertsitate Eremuan aintzat hartzen diren kalitateari, garrantziari, gardentasunari, aitopenerari eta mugikortasunari lotutako printzipioak ebaluatzen dira.

Diplomak emateko ekitaldian, Txomin Nievak, CAF Power & Automation-eko Produktu Teknikoaren Garapenerako zuzendariak, "Experiencias, vivencias y lecciones para el futuro" izenburuko hitzaldia emango du. Hitzordua Amaia Antzokian izango da, Arrasaten (Otalora Lizentziatua kalea, 2), 19:00etan.

Gainera, diplomak emate hau bikoitza izango da: batetik, Mekanikoko Industria Ingeniaritza Teknikoko bi ikaslek jasoko dituzte diplomak, eta bestetik, Graduko promozioko 175 ikaslek. Ekitaldian zehar aipamen berezia jasoko dute Kutzaren programetan sariak jaso dituzten ikasleek. Haietako batek, Ander Elustondok, gainera, aipamen berezia jasoko du, euskaraz egin duen karrera bukaerako proiektuagatik saria irabazi duelako.

Diploma-banaketa bihar egingo da, Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusi Carlos Garciak inauguratuko duen ekitaldi-akademikoan. Ekitaldia ixteaz Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxa arduratuko da.

Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek, gutxi gorabehera, urtebeteko Karrera Amaierako Proiektua egin dute, enpresaren batekin lankidetzan. Horietako enpresa asko atzerrikoak izan dira: Danimarkakoak, Italiakoak, Txekiar Errepublikakoak, Frantziakoak, Poloniakoak, Austriakoak, Suediakoak, Alemaniakoak, Erresuma Batukoak eta Belgikakoak, besteak beste.



GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA

ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR